



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Aurkezpena: BIZKAIA & Durangaldea hurbiltze baten 800. urteurrena

2012ko abenduaren 19an

Ana Madariaga Ugarteren hitzaldia (Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria)

Egunon guztioi!

Ongi etorri Bizkaiko Batzar Nagusien administrazio-egoitza honetara. Onez etorriak Gerediaga Elkartearen, Durangaldeko Merinaldearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari guztioi.

Durangaldeak eta Bizkai Lurraldeak alkarregaz hasi eben ibilbidearen 800. urteurrena gogotara ekarteko prestatu dogun egitaraua hedabideei eta, euren bitartez, Bizkaiko gizarte guztiari aurkezteko bildu gara gaur hemen.

Durangaldeko eleizateak eta Bizkaiko enparaukoak alkartzen dituan proiektu honetan, bada, bere izaera eta nortasuna hain bizi eta sendo gorde dituan eskualde horren berezitasunak agertzen dira, esate baterako berariazko erakundeei luzaroan eutsi izana, hain zuzen be Foruak 1876. urtean ezabatu euskuezan arte.

Gaurko sasoietara etorrira, Abadiñoko Gerediagako San Salbadore eta San Klementeren ermita-batzarretxea eta Foru Zelaia dira Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzetako bat, Gernikako batzarretxeagaz eta Abellanedakoagaz batera. Gure lau egoitzek ondo erakusten dabe Bizkaiaren aniztasuna.

Bizkaiko Batzar Nagusiok beti egiten dogu gustura lan Gerediaga Kultur Elkartegaz. Gerediagakoak, behin amaiturik urteroko Azokako lanak, arrakasta handiagaz amaitu be, orain beste ospakizun honetan buru belarri dihardue. Gaur aurkeztuko dogun egitarau honetan hainbat gauza biltzen dira: batetik, ikerketa zientifikoa —liburu bat argitaratu da-ta merinaldearen ibilbideari buruz—; bestetik, zabalkunde historikoa —antzezlan baten eskutik—; autortza ekitaldia —“Durangaldeko Teila” saria emongo da—; nortasun bereziaren aldarrikapena —urtero egiten dan lez, “Durangoko Merinalde Eguna” ospatuko da—; eta azkenik, erakunde-ospakizuna eta herri-jaiak.

Abadiñoko Gerediagan ez eze, Durangon eta Elorrioren be izango dira ekintza batzuk Bizkaiaren eta Durangaldearen arteko hurbiltzearen 800. urteurrena ospatzeko, ospakizun xumea eta kutuna besterik ez dan arren. Zortzi mendeko baterako ibilbide hori etorkizunari begira ospatu gura dogu. Iragana, oraina eta geroa batzen dituan ildotik, 800 urte eta hondino be etorkizun handia dauen bidean.

Hurrengo, Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidenteak egingo dau.

Eskerrik asko!



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Presentación BIZKAIA & Durangaldea hurbiltze baten 800. Urteurrena

19 Diciembre 2012

Intervención de Ana Madariaga Ugarte (Presidenta Juntas Generales de Bizkaia)

Egunon guztioi!

Ongi etorri a la sede administrativa de las Juntas Generales de Bizkaia. Bienvenida a la representación de Gerediaga Elkarte, Mancomunidad de Durangaldea y Diputación Foral de Bizkaia.

Nos reunimos hoy para presentar a los medios de comunicación y, a través de sus representantes, a toda la sociedad vizcaína el programa preparado para conmemorar el 800 aniversario del inicio del camino común recorrido por el Duranguesado y el territorio histórico de Bizkaia.

Un proyecto común entre las anteiglesias de Durangaldea y el resto de Bizkaia que nos permite también resaltar las peculiaridades de esta comarca con tanta vida propia y que supo mantener sus instituciones particulares hasta la abolición foral de 1876.

Hoy la Campa Foral de Gerediaga con la ermita de San Salvador y San Clemente en Abadiño es la Casa de Juntas de Gerediaga, una de las tres sedes políticas de nuestro parlamento de Bizkaia junto a Gernika y Abellaneda. Nuestras cuatro sedes simbolizan muy bien la pluralidad y diversidad de Bizkaia.

Desde Juntas Generales de Bizkaia siempre es un placer colaborar con la Asociación cultural Gerediaga. Tras culminar con éxito la anual edición de la Azoka, ahora están volcados en esta celebración. El programa que hoy presentamos aúna investigación científica con la publicación de un libro sobre la trayectoria de la merindad, divulgación histórica con la organización de un espectáculo teatral, reconocimiento personal con la entrega de la “Durangaldeko Teila”, reivindicación de identidad propia con el anual “Durangoko Merinalde Eguna”, así como celebración institucional y también fiesta popular.

Además de Gerediaga en Abadiño, también Durango y Elorrio serán escenarios de los actos de esta sencilla y entrañable conmemoración de este 800 aniversario del acercamiento de Bizkaia y Durangaldea. Una trayectoria en común que queremos celebrar en clave de futuro. Una andadura en común con pasado, presente y futuro. Un camino de 800 años con mucho futuro por delante.

Y a continuación le cedo la palabra a Nerea Mujika, Presidenta de Gerediaga Elkarte.

Mila esker!
